

AZKUE BIBLIOTEKA: DURANGOKO AZOKAN ERAKUSKETA

Durango, 1994-12-07

Jose Antonio Arana Martija

Aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan (abenduak, 7/11) Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekak Gerediaga Elkartearekin erakusketa bat antolatu du, aurtien hildako euskaltzain oso (Antonio María Labaien) eta ohorezko (Justo Garate eta Jon Bilbao) jaunei omenaldi gisa prestatua.

Bitrinetan erakutsi diren liburuak Azkue Bibliotekatik eramandakoak izan dira, eta paneletan agertu diren argazkiak eta dokumentu (gutunak) handituak ere gure artxibotik ataranikoak.

